



Conseil de Développement du Pays Basque
Euskal Herriko Garapen Kontseilua



GIZARTE ZIBILAREN FOROA

Zein lurralde proiektu Euskal Elkargoarekin?

Lantegiaren sintesia

**Gazteak autonomo bilakatzea
eta orientatzea**



Gazteak autonomo bilakatzea eta orientatzea

Leire LOYATHO et Cédric SAMPEREK animaturik

AGERIAN DENA ETA JOKOAN DENA

Lantegiak autonomia definitzeko aukera eman du:

- Bizitzako adin desberdinetan erdietsi ohi da autonomia
- Zenbait baliabide eskuratzeari loturik da: lanpostua, baina baita bizitegia, osasuna, mugikortasuna, formakuntza, kultura...
- Funtsezko bi faktoretan oinarritzen da: **gazteen gaitasunak eta duten ingurumena**

Gazteen ezinegona izan ohi da, maiz, autonomia mentsaren oinarrian. Gizarte loturak, norbere buruaren estimua, senideak... garrantziko faktoreak dira, beraz, autonomia erdiesteko.

Gaitasunei dagokienean, maiz, eskola munduan garatu direnei besterik ez zaie behatzen, eta beste inguruneetan garatu direnak bazter uzten dira (aisialdietan edo elkarteetan engaiatuz garatutakoak, adibidez). Erakundeek, batzuetan, gazteak bridatzen dituzte haien ekimenetan, sormenean, eta horiek ere gaitasun baliagarriak garatzeko bideak dira, ordea.

NOLAKO ARRAPOSTUA EMAN?

Irabazi behar den erronka gazteak **laguntzeko manera aldatzea** da (kalitateari kasu handiago eginez, jarraipena denboran luzatuz), eta gazteek eurek ere beren gaitasunak garatzen parte hartze handiagoa ukan dezaten bultzatzea:

- Jarraipen iraunkorragoa egitea eta luzeago laguntzea, bereziki lizeoaz haratago laguntzea
- Eskolatik kanpo lortutako gaitasun orori balioa ematea
- Lanbideak eta lan mundua konkretuki ezagutzera ematea: profesionalekin topatuz, informazio hobe eskuratuz (formakuntzari eta orientabideari buruz).

Azkenik, autonomia motibazioz eskuratzen da: gazteek **beren burua ezagutu behar dute**, eta, horretarako, beren nahiak eta ametsak ezagutzeko aukera emanen dieten leku eta uneak atzeman behar dituzte.

URRATZEKO BIDEAK...

- **Gazteen eta profesionalen arteko trukadak** faboratzea; gazteen arteko trukadak faboratzea erakunde beraren barnean
- Eragile ororen arteko **lankidetzak** garatzea, orori zabalik diren lantegiak proposatzeko, komunikazioaren harmonizazioa...
- «**Gaitasunen eta lurraldeko eskola**» sortzea